

**2022KO MAIATZAREN 10EAN EGINDAKO
EZ-OHIKO UDALBATZAREN BILKURAKO AKTA**

BERTARATUAK

Alkate-Lehendakaria

Gorka Murua Macuso

Zinegotziak

Noelia Lataburu Ortiz
Mikel Iturbe Saizar
Olaia Nieto Legarra
Leticia Aristi Oria
Ana Jesus Leunda Gurrutxaga
Jose Ramón Epelde Irizar
María Cristina Santos San Sebastian
Marta Castrillo Iturralde

Idazkaria: Irantzu Arrizabalaga Gainza.

Arratsaldeko 19:00etan batzarrari hasiera eman zaio.

Iruran, 2022ko maiatzaren 10ean arratsaldeko 19:00etan, Udaletxeko Pleno Aretoan, Irurako Udaleko EZ-OHIKO Udalbatza Plenoa egiteko goian adierazten direnak lehen deialdian bildu dira.

Bilera, publikoari irekia izango da, eta edozein herritarrek bere eskura izango ditu bileraren akta eta audio grabazio argitaratu ondoren eskuratzeko.

Bertaratuak bezala goian agertzen diren zinegotziak batzarkide direlarik, Gorka Murua Macuso izan da Batzarburua.

**1.- LANPOSTUEN ZERRENDAREN ALDAKETA PEOI PLAZA BERRIA SORTZEKO
20/2021 LEGEAREN BAITAN.**

Gorka Murua alkateak hartu du hitza eta 20/2021 sektore publikoko langileen egonkortze prozesuaren eraginez hartu beharreko erabakia dela adierazten du.

Espediente-zk.: 2022IDAZ0011

Gaia: peoi plaza estrukturalaren egoera erregularizatzea dagokion plaza sortuaz.

DIKTAMENA

AURREKARIAK

20/2021 Legea, Enplegu Publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriena buruzkoak, 2.artikuluaren 1.atalean ezartzen duenez, "...aldi baterako enplegua egonkortzeko tasa

gehigarri bat baimentzen da, administrazio publikoetan jasota dauden eta aurrekontu-zuzkidura duten lanpostu estrukturalak barne, lanpostuen zerrendetan, plantilletan edo giza baliabideak antolatzeke beste moduren batean **egon edo ez**, gutxienez 2020ko abenduaren 31 baino lehenagoko hiru urteetan aldi baterako eta etenik gabe beteta egon direnak.(...)

2. 1. paragrafoan aipatutako egonkortze-prozesuak eta egonkortze-prozesu berria artikulatzen dituzten enplegu-eskaintzak 2022ko ekainaren 1a baino lehen onartu eta argitaratu beharko dira dagozkien aldizkari ofizialetan, eta administrazio publiko eskudunek koordinatuko dituzte.

Enplegu publikoko eskaintzetan sartutako lanpostuak betetzeko hautaketa-prozesuen deialdiak 2022ko abenduaren 31 baino lehen argitaratu beharko dira.

Hautaketa-prozesu horiek 2024ko abenduaren 31 baino lehen ebatzi beharko dira.

3. Aldi baterako estaldura-tasa egiturazko plazen ehuneko zortzitik beherakoa izango da.

4. Hautaketa-prozesu horiek, lehia askearen, berdintasunaren, merezimenduaren, gaitasunaren eta publikitatearen printzipioak betetzen direla bermatuko dutenak, Estatuko Administrazio Orokorraren, autonomia-erkidegoen eta toki-erakundeen lurralde-eremu bakoitzean negoziatu ahal izango dira, eta administrazio publikoen arteko koordinazioa ahalbidetuko duten neurriak artikulatu ahal izango dira Enplegu Publikoa Koordinatzeko Batzordearen baitan.

Administrazio bakoitzaren funtzio publikoari buruzko araudian edo araudi espezifikoan ezarritakoari kalterik egin gabe, **hautaketa-sistema oposizio-lehiaketa izango da, eta lehiaketa-fasean puntuazio osoaren ehuneko berrogeiko balorazioa izango du**. Balorazio horretan, dagokion kidegoan, eskalan, kategorian edo baliokidean izandako esperientzia hartuko da kontuan gehienbat, eta oposizio-fasean egindako ariketak ez dira zertan baztertzailerak izango, Enpleguaren Lege Bateginaren 37.c) artikuluan ezarritako Oinarriko Estatutuaren negoziazio kolektiboaren esparruan.

Sektoreko edo administrazio bakoitzeko berriazko araudian hala aurreikusita badago, plazak betetzeko alde aurreko mugikortasun- edo barne-sustapeneko mekanismoak bateragarriak izango dira egonkortze-prozesuekin.

5. Prozesu horiek ebatztea ez du ekarriko, inola ere, gastua edo langileak gehitzea. Prozesu horietan, nahitaez, aldi baterako lotura duten langileek betetzen dituzten egiturazko lanpostuak eskaini beharko dira.

6. Konpentsazio ekonomikoa emango zaie bitarteko funtzionarioei edo aldi baterako lan-kontratuko langileei, zerbitzu-urte bakoitzeko hogeitun eguneko ordainsari finkoen baliokidea, eta hilabeteka hainbanatuko dira urtebetetik beherako aldiak, gehienez ere hamabi hilerokora arte, baldin eta, jardunean egonda ere, egonkortzeko hautaketa-prozesua ez gairatzeagatik Administrazioarekiko harremana amaituta badute.

Aldi baterako lan-kontratuko langileen kasuan, konpentsazio hori honako honen arteko aldea izango da: zerbitzuan emandako urte bakoitzeko soldata finkoaren hogeitun eguneko gehienezkoaren (gehienez ere hamabi hileko soldata) eta kontratua amaitzeagatik jaso beharreko kalte-ordainaren arteko aldea, urtebetetik beherako aldiak hilabeteka hainbanatuta. Kalte-ordain hori bide judizialean aitortzen bada, zenbatekoak konpentsatuko dira.

Izangaiak egonkortzeko hautaketa-prozesuan parte hartzen ez badu, ez du inola ere konpentsazio ekonomikorako eskubiderik emango.

7. Eskaintzaren jarraipena egin ahal izateko, administrazio publikoek Ogasun eta Funtzio Publikoko Ministerioari ziurtatu beharko diote, Aurrekontuen eta Gastuen Estatu Idazkaritzaren bidez, ukitutako eremu bakoitzean aldi baterako okupatutako egiturazko plazen kopurua.

Seigarren xedapen gehigarria. Iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespeneko deialdia.

Administrazio publikoek, salbuespen gisa eta EPOLTBren 61.6 eta 7. artikuluetan aurreikusitakoarekin bat etorriz, **lehiaketa-sistemaren** bidez deituko dituzte 2.1 artikuluan ezarritako baldintzak beteta 2016ko urtarrilaren 1a baino lehen aldi baterako etenik gabe beteta egon diren plazak.

Prozesu horiek behin bakarrik egingo dira, eta Estatuko Administrazioaren, autonomia-erkidegoen eta toki-erakundeen lurralde-eremu bakoitzean negoziatu ahal izango dira, betiere arau honetan ezarritako epeak errespetatuz.

Ikusi da, peoi gisako kontratazioak 2012ko ekainean hasten direla; eta hortik aurrera, etengabeko kontratazioak egiten direla lanpostu hau betetzeko.

Halaber, udal aurrekontuetan plaza honen ordainsariak Pertsonalari dagokion kontu-sailetik ordaintzen dira.

Aurrekari horiek, nahikoa baino gehiago dira, plazak izaera estrukturala duela aitortzeko.

IKUSIRIK.-

Idazkari-kontuhartzaileak egindako txostena.

PROPOSAMENA.-

LEHENENGO.- 2022 lanpostuen zerrendaren erlazioa eta plantilla organikoaren aldaketa egitea, hau da peoi plaza eta postua, E mailako azpitaldean sortzea eta dagokion prozedura aurrera eramatea.

2022 URTERAKO LANPOSTUEN ZERRENDA ALDAKETA

KARRERAKO FUNTZIONARIOEI GORDETAKO LANPOSTUAK

Zk:	Izena	Lanpostu mota	Hornitze ko era	Taldea	Es kal a	Azpi eskala	Titulazi o	HE.	Derri g. data	Ordai. maila	L.O	O.B.	Iana
1	Peoia	S	K	E	AB	ZB	4	1	20-05	15	18	13.000	100%

BIGARREN.- postuen baloraketan, peoiari dagozkion eginkizun eta funtzioak txertatzea.

HIRUGARREN.- Gizarte Segurantzari, IVAPri, langileen ordezkariari, interesatuari eta kontuhartzaitza sailari erabaki honen berri ematea.

Iruran, 2022ko maiatzaren 4an

Batzordeko Idazkaria
Irantzu Arrizabalaga Gainza And.

BOZKETA.- AHO BATEZ ONARTU DA PROPOSAMENA.

2.- 2021EKO AURREKONTU LIKIDAZIOAREN BERRI EMAN.

Gorka Murua alkateak hartu du hitza eta 2021eko aurrekontuari dagokion likidazioaren datuak azaldu dizkie zinegotziei. Eraitza positiboak izan direla azpimarratu du alkateak eta 2022ko aurrekontura txertatuko den kredituaren berri ere eman du.

104/2022 ALKATE DEKRETUA

Udal honen 2021eko aurrekontuaren likidazioari buruz Kontuhartzaileak osatu duen txostena ikusirik, eta likidazio horren dokumentuak aztertu ondoren, bertan jasotakoarekin bat natorrenez, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 49.3 artikuluan emandako eskumenak erabiliz, honako hau

EBATZI DUT

Lehena.- Udal honen 2021eko aurrekontuaren likidazioa onartzea. Hona hemen horren laburpena:

DIRUZAINZTA GERAKINA

1.- Diruzaintzako izakin likidoak, 2021-12-31n:		1.057.132,30
2.- Kobratu gabeko saldoak, 2021-12-31n:		464.836,09
Aurrekontuko zordunak :	448.465,76	
Aurrekontuz kanpoko zordunak:	16.370,33	
- Aplikatu gabeko kobrantzak:	0,00	
3.- Ordaindu gabeko saldoak, 2021-12-31n:		229.783,74
Gastuen aurrekontuko hartzekodunak:	118.152,65	
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak:	112.806,73	
- Aplikatu gabeko ordainketak:	1.175,64	
4.- Diruzaintzako gerakina guztira (1+2-3):		1.292.184,65
5.- Saldo kobragaitzak:		28.487,47
6.- Gehiegizko finantzaketa lotua:		0,00
7.- Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina (4-5-6):		1.263.697,17

AURREKONTUKO EMAITZA

1.- Aurtengo aurrekontuko eragiketen emaitza:	360.839,13
2.- Aurreko ekitaldietan likidatutako aurrekontuetako eragiketen emaitza:	-36.013,73
3.- Doiketak, diruzaintzako gerakinaren bidez finantzatutako obligazioengatik:	125.234,12
4.- Doiketak, finantzaketa lotua duten gastuen desbiderapenengatik:	71.888,09

5.- Aurrekontu emaitza (1+2+3+4):	521.947,61
-----------------------------------	------------

KREDITU GERAKINAK

1.- Txerta daitezkeen kreditu gerakinak:	1.565.578,33
2.- Txertatu ezin diren kreditu gerakinak:	98.332,46
3.- Kreditu gerakinak, guztira (1+2):	1.663.910,79

Bigarrena.- 2022ko aurrekontuari 1.565.578,33 euroko kreditu-gerakinen txertaketa egin, gastu orokorretarako altxortegi gerakinarekin finantzatzuz 2 2000.870.000.00.01 (Esp. zk. 2020-KALD-000005-00).

Hlugarrena.- Gipuzkoako Foru Aldundiari likidazio espedientearen kopia bidaltzea, lehen aipatutako Foru Arauak, 49.5 artikuluan, jasotakoa betez.

Laugarrena.- Udalbatzari dekretu honen berri ematea hurrengo bileran.

Honela jasota gera dadin behar diren ondorioetarako, Dekretu hau izenpetzen dut.

Gorka Murua Macuso
Alkateak

Elektronikoki sinatua

Nire aurrean
Irantzu Arrizabalaga Gainza
Idazkariak

Elektronikoki sinatua

Alkateak emandako informazioarekin Zinegotziak jakinaren gainean geratu dira.

3.- 2022-KALD-0001 KREDITU ALDAKETAREN PROPOSAMENA ONARTZEA.

Gorka Murua alkateak hartu du hitza eta, 2022ko aurrekontuari eragingo dion 1go kreditu aldatetaren proposamena azaldu du, horien artean, argindarra eta gasaren igoera eta haurreskola gaineko erabilera anitzeko zerbitzuen obra eta administrarien kontratazioa nabarmendu ditu.

KREDITU ALDAKETAK

2022-KALD-000001-00
Kreditu gehigarriak

KREDITU GEHIGARRIEN PROPOSAMENA

Udal zerbitzuek dituzten premiei eta obligazioei aurre egiteko, beharrezkoa da hainbat gastu berehala egitea. Izan ere, horiek atzeratuz gero sortuko litzatekeen kalteak eragin nabarmena izango luke zerbitzuen kalitatean. Aurrekontuaren exekuzioaren arabera, ordea, gastu partidetan ez dago nahiko krediturik aipatutako gastuei aurre egiteko. Ondorioz, kredituak sortzeko edo, hala badagokio, gehitzeko proposatzen da, ondoko taulako xehetasunaren arabera:

Gastuen partida	Azalpena	Kredituak		
		Egungoak	Aldaketak	Behin betikoak
1 0000.120.920.00.00 2022	Oinarrizko soldata. Idazkaritza. F	104.100,00	40.000,00	144.100,00
1 0000.622.459.00.00 2022	w.c komun publikoa kalean	0,00	14.000,00	14.000,00
1 0000.409.943.00.00 2022	Dirulaguntza: El Pasoko Udala	0,00	300,00	300,00
1 0000.622.425.00.00 2022	Azterketa: energia industrialdea + Nasei	0,00	5.500,00	5.500,00
1 0000.626.162.20.00 2022	Zabor kontenedorreen hobekuntza (Txip.a)	0,00	2.100,00	2.100,00
1 0000.601.153.20.01 2022	Sagasti kaleko urbaniz eta proiektua	65.000,00	80.000,00	145.000,00
1 0000.201.924.00.00 2022	Herriko Ostaturia partehartze prozesua	15.000,00	2.000,00	17.000,00
1 0000.221.231.00.03 2022	Gasa: Gizarte zerbitzuak	40,00	1.500,00	1.540,00
1 0000.221.323.00.03 2022	Gasa: lehen hezkuntza	760,00	380,00	1.140,00
1 0000.221.342.00.03 2022	Gasa: kirol instalakuntzak	3.200,00	1.600,00	4.800,00
1 0000.221.333.00.03 2022	Gasa: Kultur lokalak	5.000,00	2.500,00	7.500,00
1 0000.221.920.00.03 2022	Gasa: Udaletxea	2.000,00	1.000,00	3.000,00
1 0000.221.165.00.01 2022	Argindarra: Argiteria publikoa	33.000,00	16.500,00	49.500,00
1 0000.221.231.00.01 2022	Argindarra: Gizarte zerbitzuak	2.200,00	1.100,00	3.300,00
1 0000.221.323.00.01 2022	Argindarra: lehen hezkuntza	1.200,00	600,00	1.800,00
1 0000.221.333.00.01 2022	Argindarra: Kultur lokalak	4.000,00	2.000,00	6.000,00
1 0000.221.342.00.01 2022	Argindarra: kirol instalakuntzak	7.000,00	3.500,00	10.500,00

1 0000.221.920.00.01 2022	Argindarra: Udaletxea	3.000,00	1.500,00	4.500,00
1 0000.622.333.00.00 2022	Erabilera anitzeko zerbitzuak	0,00	170.000,00	170.000,00
GUZTIRA		245.500,00	346.080,00	591.580,00

Kod.	Partida	Azalpena	Zenbatekoa
a	2 0000.870.000.00.01 2022	REMANTE DE TESORERIA	346.080,00
FINANTZAKETA GUZTIRA			346.080,00

KODEEN AZALPENA

- a) Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina.
- b) Finantzaketa lotua duten gastuetarako diruzaintza gerakina
- c) Sarrera berri edo handiagoak.
- d) Kredituen baliogabetze baja.
- e) Kreditu eragiketak.

IRURA, 2022ko apirilaren 29an

ALKATETZA

BOZKETA.- AHO BATEZ ONARTU DA PROPOSAMENA.

4.- HAUTAKETA PROZESUEN TASAREN IGOERA ONARTZEA.

Gorka Murua alkateak hartu du hitza eta, hautaketa prozesuek eragingo duten kudeaketaren aurrikuspenak ikusirik tasaren igoera proposatu du.

Prozedura: Ordenantza Fiskala aldatzea.

Gaia: Irurako Udaleko langile izateko hautapen probetan parte hartu nahi dutenei eman beharreko Zerbitzuengatik tasa bat ezartzen duena arautzen duen Ordenantza Fiskalak aldatzea, 10€tik 20€ra.

IDAZKARITZA-KONTUHARTZAILETZAREN TXOSTENA

Alkatetzak 2021eko urriaren 13ko probidentzia bidez agindutakoaren arabera, eta gaikuntza

nazionala duten Toki Administrazioaren funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 3.3.a) eta 5.2 artikuluetan ezarritakoa betez, zein Toki Erakundearen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduaren (azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren bidez onartutakoa) 172. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, Hiri Izaerako Lursailen Balio Gehikuntzaren gaineko Zerga arautzen duen ordenantza fiskala aldatzeko espedienteari dagokionez, honako txosten hau egiten dut.

TXOSTENA

LEHENENGOA. Udalek beren zergak ezartzea eta kentzea erabaki dezakete, baita zerga horiek arautzen dituzten ordenantza fiskalak onartu zein aldatu ere. Azken horietan, aldatutako arauen idazketa berria jaso beharko da, baita horiek onartzeko eta aplikatzen hasteko datak ere.

BIGARRENA. Legedia aplikagarria

- 11/1989 Foru Araua, uztailaren 5ekoa, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen.
- 2/2005 Foru Araua, martxoaren 8koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzkoa.
- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen: 22.2.e), 47.1, 106 eta 107. artikulak.

HIRUGARRENA. Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen Gipuzkoako Lurralde Historikoari buruzko uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 7. artikuluan xedatutakoaren arabera, Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalerriek dagokie, Foru Arau honetan ezarritakoaren esparruan, beren zergak kudeatu, likidatu, ikuskatu eta biltzea. Era berean, udal-zergak arautzen dituzten foru-arauetan eta zerga horiek garatzeko foru-xedapenetan ezarritako berezitasunak bete beharko dira.

Beren ordenantza fiskalen bidez, Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalerriek aurreko paragrafoan aipatutako araudia onartu zein moldatu dezakete, horietako bakoitzaren barne-antolamendu eta -funtzionamenduaren araubideari dagokiona, eta egokitzapen horrek ezin izango du araudi horren eduki materiala urratu.

LAUGARRENA. Irurako Udaleko langile izateko hautapen probetan parte hartu nahi dutenei eman beharreko Zerbitzuengatik tasa bat ezartzen duena arautzen duen Ordenantza Fiskalak aldatzeko prozesu osoan, publizitate aktiboaren eskakizunak bete beharko dira, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21.4 artikuluan eta gardentasunaren arloan indarrean dagoen araudian xedatutakoaren arabera.

Zerga arautzen duen ordenantza fiskalaren aldaketa onartzeko erabakia Udalbatzaren eskumena da, 7/1985 Legearen 22.2.e) artikuluan arabera, eta hura bertaratutako kideen gehiengo soilaren aldeko botoarekin onartuko da, 7/1985 Legearen 47.1 artikuluan ezartzen den bezala, abenduaren 16ko 57/2003 Legeak egindako erreformaren ondoren.

BOSGARRENA. Irurako Udaleko langile izateko hautapen probetan parte hartu nahi dutenei eman beharreko Zerbitzuengatik tasa bat ezartzen duena arautzen duen Ordenantza Fiskalak aldatzeko prozedura 11/1989 Foru Arauaren 16. artikuluan aurreikusten da:

A. Alkatetzaren erabakiz, espedientea hasi behar da, eta ogasunaren arloan eskumena duten udal-

zerbitzuek Ordenantza Fiskala aldatzeko proiektua egin dezaten eskatuko da.

B. Ordenantza fiskala aldatzeko proiektua idatzi ondoren, Idazkaritza-kontuhartzaitzaren txostena eskatuko da ordenantza aplikatu beharreko legeriara egokitzen den jakiteko, baita proposamen-txostena ere.

C. Idazkaritza-kontuhartzaitzaren proposamen-txostena Ogasuneko Informazio Batzordearen irizpenera igorriko da, Udalbatzak behin-behinean onar dezan, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2.e) artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz.

D. Aldaketa behin-behinean onartu ondoren, espedientea jendaurrean jarriko da udaletxeko iragarki-oholean eta Probintziako Aldizkari Ofizialean, gutxienez hogeita hamar egunez. Egun horietan, interesdunek espedienteaz aztertu eta egoki iritzitako erreklamazioak aurkeztu ahal izango dituzte. Halaber, interesdunen eskura egongo da udal honen egoitza elektronikoan.

E. Jendaurrean jartzeko epea amaitutakoan, dagokion behin betiko erabakia hartuko da, aurkeztutako erreklamazioak eta ordenantzaren behin betiko idazketa ebatziz. Erreklamaziorik aurkeztu ez bada, erabakia behin betiko hartu dela ulertuko da, ordura arte behin-behinekoa, osoko bilkuraren erabakirik behar izan gabe.

F. Behin betiko (esanbidezkoa edo isilbidezkoa) onesteko erabakia eta zerga arautzen duen ordenantza fiskalaren aldaketaren testu osoa Udaletxeko iragarki-taulan eta probintziako aldizkari ofizialean argitaratuko dira, eta une horretan jarriko da indarrean. Era berean, behin betiko onespenerabaki hori alegazioak aurkeztu dituzten interesdunei jakinaraziko zaie, eta interesdunen eskura egongo da udal honen egoitza elektronikoan.

ONDORIOA.

Espedienteaz osatzen duen dokumentazioa zein azalduko ordenantza fiskalaren proposamena ikusita, espedienteak aplikatu beharreko legedian ezarritako izapidetzeari jarraitu diola jotzen da, eta Udalbatzak behin-behinean onartu behar du, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 47.1 artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorritz, bertaratutako kideen gehiengo soilez.

Horregatik guztiagatik, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren bidez onartutako Toki Erakundearen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduaren 175. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz, sinatzen duenak honako akordio-proposamen hau egiten du.

AKORDIO PROPOSAMENA

LEHENENGOA Irurako Udaleko langile izateko hautapen probetan parte hartu nahi dutenei eman beharreko Zerbitzuengatik tasa bat ezartzen duena arautzen duen Ordenantza Fiskalaren aldaketa 10€tik 20€ra aldatzea behin-behinean onartzea, proposamenean agertzen den testuarekin.

BIGARRENA. Aurreko erabakia jendaurrean jartzea, iragarki bidez. Iragarki hori udal-iragarki-taulan eta probintziako aldizkari ofizialean jarriko da hogeita hamar egun balioduneko epez, iragarki hori probintziako aldizkari ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita. Epe horretan, interesdunek espedienteaz aztertu eta egoki iritzitako alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte.

Halaber, interesdunen eskura jarri beharko da Udal honen egoitza elektronikoa.

HIRUGARRENA. Aipatutako epean espedienteari erreklamaziorik aurkezten ez bazaio, erabakia behin betikoa dela joko da, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 16.3 artikuluan xedatutakoaren arabera.

LAUGARRENA. Alkateari ahalmena ematea gai honekin zerikusia duten agiriak sinatzeko.

Iruran, 2022ko apirilaren 29an

IRURAKO IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA

Irantzu Arrizabalaga Gainza

BOZKETA.- AHO BATEZ ONARTU DA PROPOSAMENA.

5.- EUSKARAKO HAINBAT ERAKUNDE ETA HEDABIDERENTZAKO DIRULAGUNTZAK ONARTZEKO PROPOSAMENA.

Gorka Murua alkateak hartu du hitza proposamena azaldu du.

EUSKARA BATZORDEA

2022ko otsailaren 17an eginiko Euskara batzordean, Euskara teknikariak txostena aurkeztu ondoren, gaia aztertu zen eta, honako proposamena egin zen, Ana Leunda Gurrutxaga zinegotziak (EAJ-PNV) adierazi ondoren bere taldeak proposamenari buruzko erabakia Udalbatzara eramango zuela, eta gainerako bi batzordekideek, Gorka Murua Macuso alkateak (BILDU) eta Noelia Lataburu Ortiz zinegotziak (BILDU), onartu ondoren proposamen hau Osoko Bilkurara eramatea:

Aurrekariak:

- 2021eko abenduaren 16ko ezohiko Batzar Orokorrean onartu ziren behin-behinean 2022ko Udal Aurrekontuak, eta 2022ko otsailaren 3an eman zitzaizen behin betiko onarpena (GAO, 22. zenbakia).
- 2022ko Udal Aurrekontuetan izendatuta datoz proposamen honetan doazen elkarte eta erakundeak ematekoak diren dirulaguntza hitzartuak:

PARTIDA-KODEA	PARTIDAREN IZENA	KOP.
1 00 00 481 335 00 20	NAFARROA OINEZ FUNDAZIOA	260 €
1 00 00 481 335 00 30	HERRI URRATS ELKARTEA	260 €
1 00 00 481 335 00 40	IBILALDIA ELKARTEA	200 €
1 00 00 481 335 00 10	KILOMETROAK ELKARTEA	200 €
1 00 00 481 335 00 00	ARABA EUSKARAZ ELKARTEA	200 €
1 00 00 481 335 00 80	EHIGE GURASOEN ELKARTEA	200 €
1 00 00 481 335 00 01	HARITUZ TOLOSALDEKO BERTSOZALEEN ELKARGUNEA	2.000 €
1 00 00 481 335 00 21	GALTZAUNDI EUSKARA TALDEA	2.000 €
1 00 00 481 335 00 51	IRURAKO IKASTOLA - GU ERE BERTSOTAN EKIMENA	2.200 €
1 00 00 481 335 00 41	TOLOSALDEKO EUSKARAREN MAHAIA	1.000 €
1 00 00 481 335 00 50	HIZKUNTZ ESKUBIDEEN BEHATOKIA	300 €
1 00 00 481 335 00 60	GARABIDE KULTUR ELKARTEA	500 €
1 00 00 481 335 00 70	EUSKARAREN GIZARTE ERAKUNDEEN KONTSEILUA	300 €
1 00 00 481 335 00 90	EUSKALTZALE EUSKALDUNON ELKARTEA (EHE)	300 €
1 00 00 481 335 00 31	TOLOSALDEKO KOMUNIKAZIO TALDEA (ATARIA)	9.500 €
1 00 00 481 335 00 11	TOLOSAKO KOMUNIKABIDEAK (28 KANALA)	3.000 €

Kontuan izatekoak:

- Dirulaguntzaren arrazoa: erakunde hauek guztiak hizkuntzaren normalizazioa lortzeko ahalegi-nean aritzen dira, bakoitza bere alorrean (hezkuntza, komunikazioa, hizkuntza-eskubideak, normalizazioa, sormena...) eta Udalak haien lana bultzatzea ezinbestekotzat jotzen du, hizkuntzaren berreskurapen eta normalizazioa gure gizartearen eta herriaren onerako delako.
- Dirulaguntza hauek UDAL AURREKONTUEN PLAN ESTRATEGIKOAK eta AURREKONTUA BETEARAZTEKO UDAL ARAUAK ezarritakoaren arabera emango dira.

Batzordearen proposamena:

- Dirulaguntza hauek ematea. Dirulaguntza izendunen kopurua, guztira, **22.420 eurokoa** da.
- Hala dagokionean, erakunde/elkarte bakoitzarekin sinatu beharreko hitzarmena sinatzeko, Gor-ka Murua Macuso alkatea ahalduntzea.

Euskara teknikaria

O.E.
Euskara batzordeburua

BOZKETA.- AHO BATEZ ONARTU DA PROPOSAMENA.

6.- IRURAKO UDALA ETA IRURA MORETUZ ELKARTEAREN ARTEKO HITZARMENA ONARTZEKO PROPOSAMENA.

Gorka Murua alkateak hartu du hitza eta Irura Moretuz talde feministarekin sinatu behar den hitzarmena goraiatu du, halaber, 2022rako aurreikusitako ekintzen agendaren azalpena egin du.

BERDINTASUN BATZORDEA

Berdintasun batzordeak, 2022ko maiatzaren 3an eginiko bileran gai hau aztertu du:

“IRURA MORETUZ ELKARTEARI 2022KO DIRU-LAGUNTZAREN ESKAERA ONARTZEKO PROPOSAMENA”

2022ko apirilaren 20an Irura Moretuz elkarteak, diru laguntza eskaera egin zuen gizon eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzeko, emakumeen ahalduntzerako, indarkeria matxistaren aurka jarduteko, feminismoaren hedapenerako elkargune izateko eta hainbat ekimen antolatzeke. Eskaera horretan, elkarteak ez zuen diru kopururik zehaztu, baina 2022ko berdintasun sailaren aurrekontua egiterakoan, udalak 3.000€ gorde zituen elkarte honek antolatutako ekintzak finantzatzeko, baldin eta sortuko balitz, oraingo kasuan bezala.

Berdintasun batzordean gaia aztertu da, baina Cristina Santos, EAJ-ko ordezkaria ez da bertan egon. Hau dela eta, Udalbatzarrari proposatzen zaio:

- 1.- Irura moretuz hitzarmenaren gaia tratatzea eta ondoren hitzarmena onartzen den edo ez bozkatzea.
- 2.- 2022ko aurrekontuko 1 0000.480.230.00.10 partidako eta Irurako Dirulaguntzen plan estrategikoan jasota dagoen bezala (2022-2024) 3.000€ak Irura Moretuz elkarteari diru laguntza emateko bideratzea, aipatutako zenbatekoaren %70 hitzarmena izenpetutakoan eta gainerako %30 gastuen eta sarreren balantzea aurkeztutakoan ordainduz.

Irura, 2022ko maiatzaren 3an.

HITZARMEN PROPOSAMENA:



IRURAKO UDALA ETA IRURA MORETUZEN ARTEKO HITZARMENA

Iruran, 2022ko maiatzaren 10ean.

SINATZAILEAK

Alde batetik, MARIA BEGOÑA VAZQUEZ MARIN adinez nagusia, 35778063E nortasun agiria duena, Iruran, c. etxezarreta kalea 11, p01. eskubian helbideratua eta G09803875 Identifikazio Fiskaleko Zenbakia duen Irura Moretuz feminismoaren sustapenerako elkartearen izenean.(. Estatutu hauek kontratu honi eranstean zaizkio 1. Zenbakiarekin).

Bestetik, GORKA MURUA MACUSO, Irurako Udaleko alkate-lehendakaria, egintza honetan udal idazkaria den IRANTZU ARRIZABALAGA GAINZAK lagundurik.

Bi aldeek hitzarmen hau egiteko gaitasun nahikoa eta kasuan kasuko ordezkariak aitortzen diote elkarri eta eragin horretarako ondokoa

AZALDU DUTE

Irura Moretuz feminismoaren sustapenerako Elkarreak hitzarmen honen diru ekarpenarekin emakumeen ahalduntzea eta herritarren sentsibilizazioa sustatzeko ekintzak garatuko dituela helburu hauekin:

Lehena.- Irura Moretuz feminismoaren sustapenerako elkarte da. Herrian sortua, gizon eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzeko, emakumeen ahalduntzerako, indarkeria matxistaren aurka jarduteko, feminismoaren hedapenerako eta herritarrengan sentsibilizazioa lantzeko elkargune izateko.

Bigarrena.- Irurako Udalak bat egiten du elkarte honek proposatutako gizon eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzeko, emakumeen ahalduntzerako, indarkeria matxistaren aurka jarduteko, feminismoaren hedapenerako eta herritarrengan sentsibilizazioa lantzeko helburuekin.

Hirugarrena.- Hitzarmen hau, Irurako Udalak 2022ko maiatzaren 10ean egin zen Osoko Bilkuran onartu zen.

Irurako Udalbatza Plenoak, 2021eko apirilaren 27an egindako bilkuran, udal honek ematen dituen dirulaguntzak arautzeko Ordenantza onartu zuen.

Ordenantza honen III. Kapituluaren 12. Atalean, Dirulaguntzak zuzenean ematea arautzen dira, Herri-Administrazioetako Dirulaguntzak arautzen dituen azaroaren 17ko 38/2003 Legean xedaturikoaren arabera.

Laugarrena.- Maria Begonia Vazquez andreak adierazten du, bere ardurapean, bera eta

ordezkutzen duen elkarteak ez daudela azaroaren 17ko 38/2003 Diru Laguntzen Lege Orokorraren 13. artikulua xedatzen duen egoeran.

Bostgarrena.- Bestaldetik, Toki Ondasunen Erregelamendua arautzen duen ekainaren 13ko 1372/1986 Errege-Dekretuko 109.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, udalek zeditu ahal izango dituzte beren ondare-izaerako ondasunak, beti ere baldintza hauek kontuan harturik:

-lagapenaren esleipendunak irabazi asmorik gabeko eta herri-intereseko erakundea izan behar du.

Lagapenak udalerriko biztanleen onura izan behar du helburua

Aurrez adierazitakoa eta bi aldeen arteko lankidetzak udalerrientzat onuragarria dela ikusirik, Irurako Udalak eta Irura Moretuz Elkartek erabaki dute lankidetzak hitzarmen hau izenpetzea ondorengo klausula hauei loturik:

KLAUSULAK

LEHENEA.- Hitzarmenaren xedea: Irura Moretuz Elkartek hainbat ekintza eramango ditu aurrera 2022 urtean, emakumeen ahalduntzerako eta herritarrengan sentsibilizazioa lantzeko.

URTARRILA	OTSAILA	MARTXOA
- Elkartea gisa inskribatu		- M8ko ekitaldiak aurrera eramatea - Irura Moretuz-en kamixetak atera eta zabaltzea.

APIRILA	MAIATZA	EKAINA	UZTAILA
- Kirol astean, generoa landuko duen hitzaldiren bat txertatu.	- Jabetze eskolako 1.go ekintza. - LGTBI egunerako ekintzak.	-Udaleko indarkeriaren aurkako protokoloan parte hartu	- Elkarterako beharrezkoa den hornikuntza lortu.

IRAILA	URRIA	AZAROA	ABENDUA
-Ikasturte hasierako ekitaldia antolatu	-Jabetze eskolako 2. ekintza	- A25eko ekitaldiak - Jabetze eskolako 3.ekintza	

Ekintza horiek finantzatzeko eta diru-sarrerak lortzeko, elkarteak duen aukera bakarra da hainbat ekintzari sarrera-tasa ipintzea. Hori dela eta, udalari babes ekonomikoa eta kasuan-kasu baliabide publikoen erabilpena eskatuko dizkio.

- Irura Moretuz elkartearen betebeharrak:
 - Diruz lagunduko diren proiektuak gauzatzea.
 - Proiektu horiei buruzko unean uneko informazioa ematea Udalari.
 - Elkartek, herriari zuzendutako ekintza guztietan Udalaren laguntza eta babesak jasotzen duela adieraziko du.
 - Urtearen bukaeran, proiektuen gauzatze-mailari buruzko txostena aurkeztea eta diru-kontuak egoki zuzitzea.
- Irurako Udalaren betebeharrak:
 - Dirulaguntzaren ordainketa zehaztutako modu eta garaien egitea.
 - Irura Moretuzekin elkarlanean, ekitaldi bat antolatzea adostutako datan, egindako lanaren berri emateko balioko duena eta herritarrek sentsibilizatzeko helburua izango duena

BIGARRENA.-Diru laguntzaren kopurua eta ordaintzeko era: Irurako Udalak 3.000 euro

arteko dirulaguntza onartuko du Irura Moretuz Elkartearentzat, aipatu dituen eta herritar guztion ongizaterako interesgarriak diren helburuak betetzeko programatutako ekintzak burutzeko.

Dirulaguntza hori kreditu honetatik ordainduko da:

2022ko udalaren aurrekontuaren Partida: 1.0000.480.230.00.10.2022.1366

Udal honek aipatutako zenbatekoaren %70 ordainduko dio Irura Moretuz Elkarteari hitzarmena izenpetutakoan, eta gainerako %30 gastuen eta sarreren balantzea aurkeztutakoan.

HIRUGARRENA.- Dirulaguntza justifikatzeko epea eta modua: 2023ko urtarrilaren 31rako, elkarteak 2022. ekitaldian egin dituen ekintzen memoria eta balantze ekonomikoa aurkeztu beharko ditu, fakturen eta bestelako agirien kopiak erantsita; eta jasotako beste edozein administraziok edo erakunde publiko zein pribatuk xede bererako emandako diru laguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabideekiko bateragarritasuna edo bateraezintasuna aztertu ondoren, Udalak zuriketa proposamena egingo du.

LAUGARRENA.- HIZKUNTZA BETEBEHARRAK. Erakunde onuradunak udalarekin dituen ahozko zein idatzizko harremanak euskaraz izango dira. Erakunde onuradunak diruz lagundutako jardueran argitaratzen diren idatzi, iragarki, ohar eta gainerako komunikazioak orokorrean euskaraz ezagutarazi beharko ditu, eta publizitatearekin ere, ahozko zein idatzia izan, berdin jokatu du. Hala ere, diru laguntzen lerro bakoitzaren deialdian edo dagokion hitzarmenean jarduera mota bakoitzari dagokion hizkuntza irizpide berezituak zehaztuko dira.

Irura Moretuzek Udalaren hizkuntza jarduera arautzeko planen arabera jokatu du, printzipio hauek oinarri hartuta:

Proportzionaltasun-printzipioa bermatuko du, diruz lagundutako jardueraren ezaugarrien, xedearen eta hartzaileren arabera.

Hizkuntza irizpideak diruz lagundutako jarduerari lotuta egongo dira.

Diruz lagundutako jardueren komunikazioak edo argitalpenak egin behar direnean, lehenetsuna emango zaio euskarari.

Irura Moretuz Elkarteko ordezkariak Udalarekin ahozko eta idatzizko harremanak euskaraz izango dituzte, hori baita administrazio honen lan hizkuntza.

Eta zalantzak argitzeko edo laguntza eskatzeko aukera izango dute Udalaren Euskara departamentura joz.

BOSGARRENA.- GENERO-BERDINTASUNAREN ARLOKO BETEBEHARRAK.

Pertsona onuradunak aplikatzekoa zaion indarreko araudi guztia errespetatu beharko du; eta bereziki Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legea. Erakunde onuradunak diruz lagundutako jardueran honako printzipio orokorrak bete beharko ditu:

a) Hizkera inklusiboa eta irudi ez sexistaren erabilera dokumentazio, euskarri eta errotulazio guztian.
b) Berdintasunean eragin positiboa izatea bermatzea.

Genero ikuspegia eta parekidetasun irizpideak txertatzea proiektuetan.

c) Proiektu eta memorietan sexuagatik desagregatutako datuak erabiltzea. Diru laguntzen lerro bakoitzaren deialdian edo dagokion hitzarmenean jarduera mota bakoitzari dagokion berdintasun irizpide bereziak zehaztuko dira.

d) Irura Moretuzek genero-ikuspegia kontuan hartu beharko du, ondorengoak betez:

e) Jarduerak sustatzeko egiten dituen kartel, testu eta agiri-tako edukitan hizkuntzaren eta irudien erabilera ez-sexista egin beharko du.

f) Ez du sortuko sexuagatik bereizkeria zuzena edo zeharkakoa eragiten duen jarduerarik.

SEIGARRENA.- INGURUMEN BETEBEHARRAK.

Pertsona edo erakunde onuradunek, oro har, ingurumeneko irizpideak hartu beharko dituzte kontuan ondorengo alorretan:

a) Aurrezte eta energia eraginkortasuna.

b) Hondakin frakzio ezberdinen sailkatze egokia, horiek sortzeari aurrea hartzeaz gain.

c) Tokiko aniztasunari kalterik ez sortzea (habitat naturalak, espezieak eta prozesu ekologikoak).

d) Mugikortasun iraunkorra sustatzea.

e) Indarrean dagoen araudiak ezarritako gehieneko mugaz gaindikozko zaratarik ez sortzea eta

herritarrekiko eta ingurumenarekiko kalitate akustikoa bermatzea. Diru laguntzen lerro bakoitzaren deialdian edo dagokion hitzarmenean jarduera mota bakoitzari dagokion ingurumen irizpide bereziak zehaztu ahal izango dira.

ZAZPIGARRENA.- IRURAKO UDALAK PREKARIOZ ZEDITUKO DUEN LOKALAREN ERABILPEN ARAUDIA

- Irura Moretuz Elkartek oraingo, Udalaren helbide berean izango du bere egoitza fiskala, elkartek leku egoki batean egonkoru arte Trinketeko goiko solairuan armairu bat izango du materiala gordetzeko.

Udaletxeko ondasunen erroldan lokal hau honela deskribatzen da:

Helbidea Trinkete
Kalifikazioa: Kirol instalakuntza publikoa.

- Udalak aipatutako espazio hori Irura Moretuz Elkarteari doan lagatuko dio bere erabilpenarako. Lagapen hori prekarioz egingo da eta ezinbesteko baldintza izango da hitzarmen honetan adostutako jarduera garatzea.
- Udalak lokalari atxikitutako honako gastu hauek ordainduko ditu: ura, argia, gasa, hondakinen kuota, lokalaren aseguru eta alarma.
- Lokalaren garbitasuna erabiltzen duten elkarten artean egingo da.
- Espazio horren ere Irura Bizi Elkartek du egoitza. Horri dagokion erantzukizuna bien artekoa eta solidarioa izango da.
- Udalak lokal hori erabileraren instalazioa izatea nahi du, horregatik, berau herriko beste taldeek ere erabiltzeko eskubidea izango dute. Dena den, Irura Moretuz Elkartek erabilerarako lehentasuna izango du eta erabileraren inguruko auzirik gertatuko balitz, Udalak erabakiko du zer egin.
- Irura Moretuz Elkartek lokala utzi den helbururako bakarrik erabiliko du eta ondo zaintzeko ardura bere gain hartzen du.
- Lokala modu egokian erabili beharko da eta ekipamendu edo instalazioen akats edo matxurik gertatzen bada, Udalarari lehenbailehen jakinarazi beharko zaio.
- Ekipamendu edo instalazioen matxurei dagokienez, matxura erabileraren arruntetik sortutakoa bada, Udalak bere gain hartuko du. Aldiz, erabileraren desegokiaren ondoriozkoa bada, espazio hori erabiltzen duten Elkarteek bere gain hartuko dute.
- Hitzarmena, ezin indemnitazio-kopurutarako eskubiderik gabe bukatuko da.
- Udalak, interes publikoko arazoak medio, lagapena bertan behera utziko balu, esleipendunak ez luke inolako eskubiderik izango indemnitazioa jasotzeko.
- Udal honek Irura Moretuzi utziko dio, bi aldeek adostutako egutegi eta ordutegian erabiltzeko, trinketeko goiko solairuan dagoen armairua, biltegi modura erabiltzeko.

ZORTZIGARRENA.- Irura Moretuz elkarteari eta Irurako udalarari dagokie instalazioak eta azpiegiturak zaintzea eta egoera egokian eta erabili aurretik zeuden bezala uztea.

BEDERATZIGARRENA.- Azaroaren 17ko 38/2003 Diru-laguntzen Lege Orokorrak ezarritakoaren arabera, onuradunak honako agiri hauek aurkeztu beharko ditu:

-Nortasunaren egiaztagiria.

-Legearen 13. artikuluan adierazten diren egoeretan ez dagoela zinez aitortzea.

Foru Ogasun eta Gizarte Segurantzarekiko zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatuko duten ziurtagiriak.

Ordaintzeko modua zehaztuz baimendutako ordezkariak eginiko idatzia aurkeztea, behar denean.

HAMARGARRENA.- Irura Moretuzek ez badu hitzarmena betetzen, aurreikusitako laguntza indargabetzea ekarriko du, eta, hala badagokio, kontuan harturik zertan ez den bete eta hitzarmen

honen xedea zein den, Udalari itzuli egin beharko dio dirulaguntza guztia edo haren zati bat.

HAMAIKAGARRENA.- Hitzarmena sinatzen duten bi aldeek bere horretan eusten diete beren ahalmenei eta hartzen dituzten erantzukizunak hitzarmenean jasotako obligazio eta konpromiso horietatik, ez besterik.

Hitzarmenak eragina izango du eta sinatzaileak beharko ditu 2022ko apirilaren 27tik aurrera, eta urte beteko indarraldia izango du.

Adostasun seinale, hitzarmenaren bi ale sinatzen ditugu.

Honen guztiaren berri eta fede ematen dut nik, idazkariak, adierazitako data eta lekuan.

IRURAKO ALKATE

IRURA MORETUZ ELKARTEA

UDAL IDAZKARIA

BOZKETA.- AHO BATEZ ONARTU DA PROPOSAMENA.

7.- KONTU-HARTZAILEAREN TXOSTENAK:

- **2022.URTEKO 1 HIRUHILABETEKO BERANKORTASUN TXOSTENAREN BERRI EMAN.**

TXOSTENA.

2022.ko 1º HIRUHILABETEAN EKITALDIAN ORDAINTZEKO BATEZ BESTEKO EPEA.

2/2012 Lege Organikoak, apirilaren 27koak, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantzen Iraunkortasunari buruzkoak, ekarri du batez besteko epea kontzeptua (OBBE). Kontzeptu honek azaltzen du zor komertziala ordaintzeko behar izan dugun denbora, edo, izan den atzerapena. Horrela Administrazio Publiko guztiek, gardentasun- ariketa bat eginez, ordaintzeko batez besteko epea argitaratu beharko dute.

Atxikita dauden orrietan Irurako Udalari 2022ko 1º hiruhileko ordainketa epeari buruzko txostenak jakinarazten dizkizuet.

Hau da,

-1º Hiruhileko Epea : 5,76 egun.

Lege barruko muga : 30 egun dira.

Iruran, 2022ko apirilaren 29an.

181761007.04

ORDAINKETA EPEAREN INFORMAZIOA
Toki entitateak: IRURA
Ekitaldia: 2022
Hiruhilekoa: Hiruhilabetea 1

1. Hiruhilekoan egindako ordainketak. Ordainketa epea obligazioa onartu zenetik hasita.

1.1. Salikapen ekonomikoaren arabera

Hiruhileko ordainketak	Ordainketa epea (Agurak bates beste)		Hiruhilekoan egindako ordainketak			
	Guztira	Epea kanpokoena	Legelako epearen barruan		Legelako epeari kanpo	
			Ordainketa kopurua	Zerbituko osoa	Ordainketa kopurua	Zerbituko osoa
Gestak onarazten amaitzen eta zerbituztutan:	8,48	32,01	499	282.968,88	8	10.998,88
20 - Errentamendua eta lanonak	7,09	32,00	17	12.231,64	2	3.000,00
21 - Korporatibak, mantenimendua eta kontzertak	5,04		86	64.712,13	0	0,00
22 - Materialak, hornidura eta bates besteak	6,73	32,01	375	176.325,66	5	7.960,58
23 - Kafe-ontziak zerbitzuz gatik	0,00		8	3.300,00	0	0,00
2X - Bestelakoak			0	0,00	0	0,00
iberbitu amaitak	4,12	31,85	39	118.963,62	2	6.894,88
0X - Iberbitu amaitak	4,12	31,82	24	113.262,40	2	6.894,88
Aurkitutako aplikatu gabeko ordainketak*			9	6,88	0	0,00
Aurkitutako aplikatu gabeko ordainketak					0	0,00
Guztira	8,78	31,79	612	512.022,07	7	17.783,41

* 2. eta 6. kapituluan dagoenak fakturak esk.

1.2. Epearen arabera

Egun kopurua	Egindako ordainketak			
	Faktura kopurua	%	Zerbituko osoa	%
30 egun edo gutxiago	513	90,95	372.532,07	95,45
31 eta 40 egunetara	7	1,25	17.791,41	4,52
41 eta 50 egunetara	0	0,00	0,00	0,00
51 eta 60 egunetara	0	0,00	0,00	0,00
60 egun baino gehiago	0	0,00	0,00	0,00
Guztira	520	100,00	390.293,48	100,00

2. Ordaindu gabe gelditu diren fakturak. Epea obligazioa onartu zenetik hasita.

Hiruhileko amaitzen ordaindu gabe dauden fakturak eta ordainagiriak	Epea (Agurak bates beste)		Hiruhileko amaitzen ordaindu gabeko daudenak			
	Guztira	Epea kanpokoena	Legelako epearen barruan		Legelako epeari kanpo	
			Eragileta kopurua	Zerbituko osoa	Eragileta kopurua	Zerbituko osoa
Gestak onarazten amaitzen eta zerbituztutan:	16,84	34,00	3	195,47	1	49,99
20 - Errentamendua eta lanonak			0	0,00	0	0,00
21 - Korporatibak, mantenimendua eta kontzertak	5,00		1	26,47	0	0,00
22 - Materialak, hornidura eta bates besteak	11,80	34,00	2	180,00	1	49,99
23 - Kafe-ontziak zerbitzuz gatik			0	0,00	0	0,00
2X - Bestelakoak			0	0,00	0	0,00
iberbitu amaitak	8	0	0	0,00	0	0,00
0X - Iberbitu amaitak			0	0,00	0	0,00
Aurkitutako aplikatu gabeko fakturak*			3	6,88	0	0,00
Aurkitutako aplikatu gabeko daudenak					0	0,00
Guztira	16,84	34,00	3	195,47	1	49,99

* 2. eta 6. kapituluan dagoenak fakturak esk.

3. Hiruhileko amaitzen obligazioa onartu gabe dauden fakturak eta ordainagiriak

3.1. Erregidiroan idatzi zirenetik hiru hilabeteetik gora daramatenak

Hiru hilabete ondoan obligazioa onartu gabe dauden fakturak eta ordainagiriak	Epea (Agurak bates beste)	Kopurua	Zerbituko osoa
Gestak onarazten amaitzen eta zerbituztutan:		0	0,00
iberbitu amaitak		0	0,00
Aurkitutako aplikatu gabeko daudenak		0	0,00
Guztira	0,00	0	0,00


3.2. Erregidiroan idatzi zirenetik daramatzaten egunak

Obligazioa onartu gabe dauden fakturak eta ordainagiriak	Obligatortik onartu gabeko fakturak			
	Faktura kopurua	%	Zerbituko osoa	%
30 egun edo gutxiago	80	100,00	49.219,41	100,00
31 eta 60 egun bitartean	0	0,00	0,00	0,00
61 eta 90 egun bitartean	0	0,00	0,00	0,00
90 egun baino gehiago	0	0,00	0,00	0,00
Guztira	80	100,00	49.219,41	100,00

4. Entitatearen ordainketen bates beste epea (OBBE)

Hiruhilekoaren OBBE	Ordaindu gabeko eragileta		Ordaindu gabeko eragileta		OBBE
	Ratua	Zerbituko osoa	Ratua	Zerbituko osoa	
IRURA	5,75	380.293,48	13,64	258,47	5,76

OBBEari buruzko gurek:



Kontu-hartzaileak emandako informazioarekin Zinegotziak jakinaren gainean geratu dira.

8.- TOLOSALDEKO PENTSIODUNAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: “TOLOSALDEKO PENTSIODUNEN PROPOSAMENA”

Alkateak hartu du hitza eta mozioa irakurri du:

IRURAKO UDALEAN ORDEZKARITZA DUTEN ALDERDIEI

Tolosaldeako Pentsiodunak proposatzen dugun mozio hau ahalik eta azkarren eztabaidatu eta onar dadin Udalbatzarrean eskatzen dugu, adinekoak eta pentsiodunak murrizketa eta digitalizazioaren ondoren banku-zerbitzutara jotzeko dugun arazo larria dela eta.

1. Abusuzko klausulak eta praktikak.

Hipotekadunari hipoteka eratzean ez zegokion gastu-karguak, horiek irekitzeko gehiegizko komisioekin batera eta abar.

2. Diru publikoa behar izan duen bankua.

Ikusten diren abusuzko praktikak erabiltzeaz gain, eta hori modu orokorrean, banku-kutxa batzuk intentsitate handiagoarekin, beste batzuk txikiagorekin, gordailuzainak babesteko 65.000 milioi eurokin erreskatatu behar izan dira.

Eta hori gertatu zen bitartean, 2021eko hirugarren hiruhilekoan ekitaldia itxita, Espainiako banku osoak (A.E.B.ko datuen arabera) 11.150m/€ irabazi zituen eta kapital etekinak %7,2koa izan zen.

3. Administrazio-prozesuen informatizazioa eta digitalizazioa.

Banku komisio gero eta handiagoak ordaintzen ari gara eta Internet bidez edozein kudeaketa egin behar izatera behartzen gaituzte eta zuzeneko aurrez aurreko arreta pixkanaka kentzea, ordutegiak murriztea, bulegoak kentzea eta langileak gutxitzea ekarri du. Herri txiki askotan, geratzen zen banketxe hura betiko itxi zuten.

4. Nola eragiten dion horrek herritarrari, finantza-bitartekariaren den bankuaren nahitaezko erabiltzailea baita.

Zalantzarik gabe, herritar guztiei eragiten die. Bankuen eta langileen bulegoak nabarmen murriztea, bai eta jendeari zerbitzua emateko ordutegiak murriztea ere. (Azkeneko notiziak diote ordutegia eta beste bi puntu onartu dituztela bankuek). Banketxe aurrean dauden ilarak lotsa sentiarazten dute.

5. Eta hori gertatu den bitartean, bankuek bere langileekin nola jokutzen duen eta oligarkiarekin nola jokutzen duen.

2021ean, EREren bidezko kaleratzeak ez dira eten (BBVA 2.725 kaleratze, CAIXA BANK 6452 kaleratze, BANCO SABADELlek bere plantillatik 1.800 langile baino gehiago atera ondoren, urriaren 15ean, aurre akordio bat lortu zuen bere ordezkariak sindikalariekin beste 1.380 langile ateratzeko. Abenduaren 3an, UNICAJA eta Bankuaren gehiengo sindikalaren arteko aurre akordio bat iragarri ziguten, LIBERBANKekin bat egitearen ondoriozko enplegu erregulazioko espediente baterako, 1.513 langileei eragingo diena.

6. Eta lanen azpi kontratazioaren eskandalua.

Gainera, ikusten dugu banku handietako batek, gutxienez, jardunean dauden bere langileen lanpostuekin jokatzearaz gain, zuzeneko enplegua sortzea saihesten duela, hau da, beste enpresa batzuen bidez bankuko lan berdina egitea bankuan bertan, baina langile horien, Bankuko Hitzarmen barruan izan gabe, eta horrela bere lan baldintzak suntsituz.

7. Galeren aukerak.

BANKIAREN erreskateak 22.424 milioi euroko kostua izan zuen, eta horietatik 3.302 milioi euro bakarrik itzuli dizkio Estatuari. 2021eko martxoaren 26an kontsumitu zen BANKIAREN absortzioa eta Estatu lehenengo akzionista izanik %61,8 partizipazioa zuen eta orain CAIXA BANKEN absortzioarekin %16,11 bakarrik geratu zaio.

8. Zer esan KUTXABANKei buruz

Orain, 2022aren hasieran, Euskal Autonomi Erkidegoko herritarroi eskatuko baligute KUTXABANK

banku bat gehiago den hala ez galdetzeko, ziur aski gehienak esango genuke, banku jardunaren arabera, beste banku bat dela. Bat etorri da bankuaren gehiegizko klausulaz betetako banku-praktikekin, neurri batean Europako justiziaren eskakizunak bakarrik zuzendu baititu.

9. Banku publiko baten beharra.

Beraz pentsiodunen gehiengo handi baten ustez sobera justifikatuta dago Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduak eta Tolosaldeako Pentsiodunak Udalbatza honetan, mozio hau aurkeztea eta horren bidez adieraztea beharrezkoa dela banku Publiko bat, zelatari lanak egingo dituen eta banku pribatuen praktiken eredu konparatiboa izango dena.

Horregatik eskatzen da banku PUBLIKOA bi printzipio hauen arabera:

- ✓ Gehien duenari gehiago kobratzea, eta kudeaketaren kostua zerbitzu horretaz gehien baliatzen direnei egozte.
- ✓ Behar den arreta presentziala ematea, bezeroek arreta hori jaso dezaten, kontuak eta ordainagiriak kudeatzea sortzen zaizkien arazoei erantzun behar badiete.

Egindako azalpenean azaldutako guztia oinarri hartuta. Udalbatza honen Osoko Bilkuran honako hau onartzea eskatzen dugu:

1. Irurako Udalaren Osoko Bilkurak leihatila bat irekitzeko eskatzen die Tolosaldean dauden banketxe guztiei. Leihatila horretan, herritar guztiei, eta 65 urtetik gorakoei lehentasunez, aurrez aurreko zerbitzua bermatuko zaie lanaldi osoan.
2. Irurako Udalbatzaren Osoko Bilkurak Tolosaldean dauden banketxe guztiei eskatzen die lokaletara sartzeko murrizketak dauden bitartean eta/edo pertsonen arteko urruntze-neurriak gorde behar diren bitartean; neurri horiek eta beharrezkoa den beste edozein bete behar direnean, entitatearen sukurtsal bakoitzean ahalik eta edukiera handieneko itxarongela bat gaitzea, hori materialki egingarria denean, edo bestela neurri batzuk hartzea, kalera eguraldiaren aire zabalean bezeroen ilarak sortzen saihesteko.
3. Irurako Udalaren Osoko Bilkurak eskatzen die Tolosaldean dauden banku-erakunde guztiei, azaroaren 24ko L9/2017 Errege Dekretuan, otsailaren 28ko ECE/228/2019 Aginduan eta martxoaren 22ko 164/2019 Errege Dekretuan xedatutakoa betez - Oinarrizko ordainketa-kontuak arautzen dituztenak-, 1. mailan, hileko komisioa ordainduta eta doakotasunezkoa 2. mailan urrakortasun-egoera kolektiborako eta hedapenerako aukera zabala egin dezatela, eta sinplifikatzea aurkeztu beharreko dokumentazio kontu horiek eskatzen duenari.
4. Irurako Udalaren Osoko Bilkurak eskatzen die Tolosaldean dauden banku-erakunde guztiei: 65 urtetik gorako pertsonen, hala eskatzen badute, doako zordunketa-txartelak ematea, inolako komisiorik gabe, erabilera-mugen inolako ordainketarik gabe, saldo jakinaren eskakizunik gabe, erabiltzeko gutxieneko zenbatekorik gabe, edo antzeko produktuak eduki gabe.
5. Kontuan hartuta bankuek, bere ohiko jardueran, bezeroekin bat datozen funtzio pribatuak betetzen dituztela, hala nola, pentsio-plan bat, inbertsio fondo bat harpidetzea, akzio pakete bat edukitzea eta kudeatzea, kutxa gotor bat alokatzea..., eta bezeroak jarduera hori ez duela nahitaez egin behar, Baina aldi berean, funtzio publikoak betetzen ditu, eta bezeroa ez da eginkizun horietan ituntzen, baizik eta, ezinbestean, bankuaren bitartekaritza onartu behar du beste aukerarik gabe, hala nola gordailugilea, bere dirua kentzea, ezinbesteko horniduraren ordainketa, hala nola, gasa, elektrizitatea, zerga ordainketa eta tasak. Irurako Udalaren Osoko Bilkurak Espainiako Bankuari eskatzen dio bankuen funtzio pribatu eta publikoak argi eta garbi bereizteko eta azken horien doakotasuna edo, bestela, gutxieneko komisio bat ezartzeko.
6. BANKA PUBLIKOA osa dezatela eskatzen die Irurako udalaren Osoko Bilkurak Ekonomia Gaietarako eta Eraldaketa Digitalizazio Ministerioari (Ekonomiako eta Enpresari Laguntzeko Estatu Idazkaritza bai eta Espainiako Bankuari eta euskal instituzioei ere, Banka Pribatuarekin bateragarria izan dadin, Bankuen berezko funtzio publikoak betez eta pertsona fisikoen tzako sarbidekoak izanik, honako printzipio hau bete dezaten: Saldorik handiena duenari gehiago kobratzea eta ordainagirian eta gainerako ordainbide- eta kobrantza-bideen kudeaketaren eta beste prestazio batzuen kostua kobratzen, batez ere zerbitzu hori gehienbat baliatzen duten pertsona fisiko edo juridikoei.
7. Irurako Udalbatzako Osoko Bilkurak 1.akordiotik 4.era bitartekoak Tolosaldean dauden banketxe guztiei eta 5. eta 6.erabakietan aipatutako erakundeei helaraziko dizkie.

Iruran, 2022ko martxoak 30a

Jarraian, Ana Leunda, EAJko zinegotziak honako hau irakurri du:

Irurako EAJ/PNV taldeak adierazten dugu herritar guztiek izan behar dutela finantza-zerbitzuetarako sarbidea, eta ezin dela egon irisgarritasuna eta aurrez-aurreko arreta zailtzen edo eragozten duen arrazoirik arreta berezia jarritz, adinekoei eta zailtasuna bereziak izan ditzaketenei.

Eusko Jauriaritza eta fidantza-erakundeei eskatu zaie elkarriketa eta azterketa prozesua non erakunde horiek konpromiso batzuk har ditzaten.

Kolektibo horien (hau da, adinekoen eta zailtasun bereziak izan ditzaketenen) premia bereziak kontuan hartzea, neurri berriak abian jartzea, arreta hurbila eta azkarra ematea, lehenetsiz, arreta pertsonalatuagoa emanaz eta telefono bidezko arreta ere indartuz.

Kutxaren ordutegia zabaltzea, bezeroen kontu korronteetan diru-sarrerak edo diru-ateratzeak egiteko ordu murrizketak edo zenbatekoak saihesteko. Kutxazain automatikoak dauden aztertu, bermatzea biztanle kopuruari erreparatuta eta bulegorik ez dagoenean, bankuek eraikin publiko eta irisgarrietan jarri eta artatu ditzatela.

Kolektibo horrentzat bereziki eskaintzen dituzten zerbitzuak edo produktuak lortzeko sistema digitalak edo makinak erabili behar izatea gutxitu, eta horretarako, gaitasun digitalak eskuratzeko kanpaina bat birkortzea eta bultzatzea, behar diren ezagutzak eta tresnak ez izateagatik oinarritzko zerbitzuak eskuratu ezin dituzten pertsonen bazterkeria hori jasan ez dezaten eta banku lagunkoia lortzeko prestakuntza-ekintzak indartzea.

2021eko uztailaren 21ean sinatutako bankaren konpromiso sozial eta jasangarria indartzeko protokolo estrategikoan lanean jarraitzea, finantza-inklusioa eta digitalizazioa sustatzeko.

Hori dela eta, Eudel finantza-erakundeekin lanean aritu da, bilerak egiten eta ondorioz emaitzak ikusi ditugu.

Adibidez, Kutxabankek konpromiso hartu du Euskal Herriko udalekin bere bulego guztietan presentziako zerbitzua mantentzeko, 8:30tatik 14:00tara ordutegiarekin eta bulego eta kutxazain automatiko gehiago ez ixteko. Telefono zerbitzua goizeko 8tatik gaueko 22ak arte, adinekoen arreta hobetzeko, neurriak hartu baitituzte adinekoen arreta hobetzeko, neurriak hartu baitituzte adinekoei arreta pertsonalizatua eskaintzeko lehentasuna emanaz eta itxaron denborarik gabe.

Kutxabank fundazioen bitartez eta Eudelen bidez ere trebetasun digitalak formatzeko aukera eskaini du euskal udalekin elkarlanean.

Beste erakundeek ere konpromiso hartu dituzte, adibidez, Laboral Kutxa, BBVA, Sabadell, Bankinter o Caixabank, batzuk aipatzeagatik.

Martxoan hasi dira aplikatzen ordutegi eta neurri berriak.

BOZKETA.- EH BILDU TALDEKO, ALDEKO BOST BOZKA, ETA EAJ/PNV TALDEKO AURKAKO LAU BOZKA.

PROPOSAMENA ONARTUA GERATU DA.

Alkateak batzar aldia bukatutzat eman du arratsaldeko 19:40etan eta bilera agiri hau jaso da, alkateak izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.